

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektua presa ekologiko bat da, artilez, hondarrez eta harriz betetako pneumatiko birziklatuak erabiliz egina. Helburua ibaietako higadura murriztea, uraren abiadura kontrolatzea eta ingurumenarekiko errespetuzko irtenbide jasangarri bat eskaintzea da. Horretarako, garrantzitsua da gure produktua edo zerbitzua bezeroengana heltzeko banaketa eta komunikazio kanal egokiak definitzea.

Kanalen bidez gure balio-proposamena bezero-segmentu egokietara iristen da. Gure kasuan, bezero nagusiak udalak, administrazio publikoak eta ingurumenarekin lotutako erakundeak dira, ingurumen-arazoei aurre egiteko irtenbide jasangarriak bilatzen dituztenak.

Proiektuan hiru kanal mota bereizten ditugu. Komunikazio-kanalen bidez, gure presa ekologikoa ezagutarazten dugu webgune baten, aurkezpen teknikoen eta ingurumen-jardunaldietan parte hartzearen bidez. Banaketa-kanala zuzena da, presak tokian bertan eraikitzen direlako, tokiko materialak eta pneumatiko birziklatuak erabiliz, ingurumen-inpaktua murriztuz. Salmenta-kanalak administrazio publikoekin zuzeneko harremanetan eta lizitazio publikoetan oinarritzen dira.

Bezeroarekiko harremanak bost fasetan antolatzen dira: lehenik, bezeroek ingurumen-arazoa hautematen dute; ondoren, gure soluzioa ebaluatzen dute; hirugarrenik, proiektua kontratatzen da; laugarrenik, presa eraiki eta instalatzen da; eta azkenik, salmenta ondorengo fasean, mantentze-aholkularitza eta jarraipena egiten dira.

Ondorioz, banaketa eta komunikazio kanalek funtsezko zeregina dute gure presa ekologikoaren proiektuan, jasangarritasuna, birziklapena eta eraginkortasuna oinarri hartuta gure soluzioa bezeroengana modu egokian helarazteko.